

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gerra Zibileko kanpainaren egunkariei buruzko hitzaldi bat izango da Karlismoaren museoan

Zentroak Julio Caro Baroja museo etnologikoari dohaintzan emandako Lehen Mundu Gerrako kasko bat erakusgai jarri du egunotan

Martes, 18 de noviembre de 2014

Karlismoaren museoak Manuel Martorell-en hitzaldi bat programatu du asteazken honetarako, azaroak 19. *Gerra Zibileko kanpainako egunkariak*. *Subjektu historikoaren ekarpen pertsonalak* izena duen hitzaldi hori 19:00etan hasiko da museoko patioan. Sarrera librea da eta doan.

"[Historiarekin konprometituta. Dohaintzak eta Gordailuak](#)" aldi baterako bertako erakusketa dela-eta Karlismoaren museoak programatutako zikloaren azken hitzaldia da. Partikularrek eta erakunde pribatuek lagatako edo dohaintzan emandako ehun bat objektu ikus daitezke bilduma horretan (armak, argazkiak, uniformeak, agiriak...), eta 2015eko otsailaren 15era arte bisita daiteke.

[Museoko webgune](#)an ordutegiei eta museoko beste jarduera batzuei buruzko informazioa aurki daiteke.

Museoak Lehen Mundu Gerrako kasko bat erakusgai jarri du

"*Lizarrako herritar bat Lehen Mundu Gerran: Jean Etchebarne*" titulupean, Karlismoaren museoak Jean Etchebarne (1896-1956) herritar frantsesarena zen kasko bat erakusgai jarri du aldi baterako. Gizon hori Baionan izan zen Lehen Mundu Gerran borrokatzeko eta, desertatu eta Pirinioak zeharkatu ondoren 1917ko neguan, Lizarran jarri zen bizitzen. Etchebarne familiak "Julio Caro Baroja" Nafarroako museo etnologikoari dohaintzan eman dio berriki.

"Adrian" modeloko kasko bat da, eta hari lotuta jabearen identifikazio militarreko eskumuturrekoa dago.

Kasko horrekin bisitariak Gerra Handiko soldadu horren biografia nahiz esperientzia pertsonala hobeto ezagutzeko aukera ematen da; horrekin batera, uniforme militarren pieza adierazgarri baten berezitasunak ezagut ditzake gatazka odoltsu horren testuinguruan (2014. urtean ehun urte betetzen dira).

Pieza Karlismoaren museoko patioan ikusi ahalko da 2014ko azaroaren 18tik abenduaren 8ra. Data horretatik aurrera, kaskoa Baionara eramango da (handik atera zen duela ia ehun urte) Baionako Euskal eta Historia museoak Lehen Mundu Gerrari buruzko aldi baterako erakusketan "gonbidatutako objektu" moduan erakusgai jartzeko.